

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

241. zenbakia

Data 2008-12-16

37239 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK

1074/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko sarrerak ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.074/2008 FORU AGINDUA, abenduaren 11koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko sarrerak ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duena.

Azken garaian, informazioaren teknologiek eta, zehazki, Internetek herri administrazioei aukera eman diete herritarrekiko harreman bide berriak antzemateko eta zerbitzu publikoak ematean orain arte ezezagunak ziren bitartekoak garatzeko.

Ordainketen eremua ez dago mugimendu horretatik kanpo, eta gaur egun berritzen ari da teknologia eta merkatu alorreko aurrerapen orokorren ondorioz. Helburu hori duela, herritarrei ordainketa errazteko tresna baten garapen informatikoa burutu du Eusko Jaurlaritzak. Ordainketa pasabidea da tresna hori.

Gipuzkoako Foru Aldundia ez da geratu esparru telematikoaren bilakaera horretatik kanpo, eta apustu handi bat egin du zergen eta zuzenbide publikoko beste diru sarrera batzuen aurkezpen telematikoa garatzearen alde. Entitate finantzarioek ezarritako arauen eta banku prozeduren koadernoak finkatuz osatu da aurkezpena. Izan ere, koaderno horiek informazioa elkarri trukatzeko aukera ematen dute, zergak, tasak eta beste sarrera batzuk ordaintze aldera.

Era berean, Aldundia jabetuta zegoen ordainketaren zirkuitua Internetez ordaintzea errazten duen tresna informatiko bat erabiliz osatzea beharrezkoa zela. Eusko Jaurlaritzak aipatu tresna garatuta zuen neurrian, begi-bistakoa zen tresna hori erabiltzea hiru helburuekin: «Euskal Administrazioarako pasabidea»ren erabilpena orokortzea; entitate finantzarioak ez behartzea berriazko garapen informatikoak egitera; eta diru baliabideak pasabidearen bitartez ordaintzea errazteko aprobetxatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Orokorraren zuzenbide publikoko sarrerak ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea arautua du Ogasuneko eta Herri administrazioeko sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduak. Beharrezkotzat hartzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren bereizgarriak islatzeko ñabarduraren bat egitea, nahiz eta ordaintzeko modalitateak, funtzionamendua, prozedurak eta foru agindu horretan araututako beste alderdi asko gure erakundean aplikatu.

Horren indarrez, honako hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

1. Ordainketa pasabidearen aplikazio informatikoak aukera emango du Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen bidez ordaintzeko.

2. Ordainketa pasabidearen bitartez Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde egiten diren diru sarrerak arautuak ditu Ogasuneko eta Herri administrazioari sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduak, ondoko artikuluetan egiten diren egokitzapenak kontuan hartuz.

2. artikulua. Ordainketa pasabidea.

1. Ordainketa pasabideak aukera emango du Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak modalitate hauetako bat erabiliz ordaintzeko:

a) Konturako kargua eginez ordaintzea, ordainketa pasabideari atxikita dauden Gipuzkoako Foru Aldundiaren kreditu entitate laguntzaileetan, azken horien zerbitzu telematikoen bidez.

b) Kreditu entitateek jaulkitako kreditu edo zordunketa txartelez ordaintzea.

Ordaintzeko, herritarrek Internetez sartu daitezke edo, bestela, Foru Administrazioak herritarren esku jartzen dituen tresna informatikoak erabil ditzakete.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aplikazioek aukera emango dute ordainketa gutunak inprimatzeko.

3. Ordainketa pasabidean sartzeko, «Nire ordainketa on line» atalean sar daitezke herritarrek, helbide elektroniko honetan: <http://www.gipuzkoa.net/DFG/servicios-e.html>

4. Ordainketa pasabidearen bitartez egiten diren ordainketak kreditu entitateen eta horien bezeroen arteko baldintzei lotuta egongo dira, bereziki eragiketen zenbatekoari dagokionez.

3. artikulua. kreditu entitate laguntzaileetan zerbitzu telematikoez kontuko karguaren bidez ordaintzea.

1. Ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzean, entitate laguntzaileak berak hartuko ditu bere gain diru sarrerak, txartelari lotutako kontuan kargatuz ordaintzea ahalbideratzen duen entitate finantzario laguntzaileen kreditu edo zordunketa txartel baten bidez bezeroa identifikatzen denean. Eragiketa horrek ezin dio inolako kalterik ekarri Gipuzkoako Foru Aldundiari.

2. Kreditu entitate laguntzaileek ezin izango dute komisiorik kobratu entitate horietan kontuko karguaren bidez haien zerbitzu telematikoak erabiliz egin diren ordainketengatik.

4. artikulua. Kreditu eta zordunketa txartelaren bidez ordaintzea.

1. Kreditu eta zordunketa txartelen bidez ordaintzean ezin izango dira gainditu Ogasun eta Finantza Departamentuak finkatutako gutxieneko edo gehieneko diru zenbatekoak, kobrantzen kudeaketari lotutako ekonomia, arrisku eta kostu irizpideei jarraituz.

2. Ezin izango da zerga aitorpen eta likidaziorik ordaindu ordainketa pasabidearen bitartez kreditu edo zordunketa txartelaren modalitatea erabiliz.

3. Berariaz ezartzen denean, Foru Administrazioak bere gain har ditzake entitate laguntzailea bera ez den entitate batek jaulkitako kreditu edo zordunketa txartelen bidez ordaintzeak berari dakartzkion gastuak.

5. artikulua. Administrazioko bulegoetan zergabiltaketako organoei aurrez aurre ordaintzea.

1. Aurrez aurre ordaintzekotan, ordainketa pasabidearen araudian jasotako prozedurari eta bermeei jarraituko zaie.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuak ordainketa prozedura horren erabilpena baimenduko du.

6. artikulua. Publizitatea.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzenbide publikoko sarrerak egiteko ordainketa pasabidean onartutako kreditu entitate laguntzaileen zerrenda www.gipuzkoa.net helbidean argitaratuko da, bai eta zergabilketa organoen bulegoetan ere, herritarrek ikusgai izan dezaten.

2. Era berean, bitarteko berdinak erabiliz herritarrei jakinaraziko zaie zer kreditu eta zordunketa txartel eta horiek ordainbide gisa erabiltzeko zer diru muga dauden.

3. Ordainketa pasabidearen bitartez ordaindu daitezkeen kontzeptuak www.gipuzkoa.net web gunean emango dira argitara.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko abenduaren 11a.—Pello González Argomaniz, Departamentuko foru diputatua.

(9326) (13962)